

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Irunberri, Zare, Pitillas eta Arangurengo abelbideen ezaugarriak zehaztuta geratu dira

*Bideak berreskuratzeko aurretiazko urrats bat da*

Asteazkena, 2019.eko otsailak 27

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran abelbideak daudela aitortu du, eta, akordio bidez, Irunberri, Zare, Pitillas eta Aranguren udalerrietan desagertutako edo hondatutako mugarriak birjartzea onartu du. Bideak berreskuratzeko aurretiaz egin beharreko lan bat da, eta horrek, positiboki eragingo du lurralde-antolamendu eta landa-ingurunearen garapenean.

Haren zabalera, trazadura eta gainontzeko ezaugarri fisiko orokorrak hondatutako edo desagertutako mugarrien sailkapeneko eta birjartpeneko espedienteen jasota daude. Hauek dira hain zuzen: Milagro-Aezkoaren Errege Bidea eta 26 zk. pasabidea; Irunberri, Murillo el Frutotik Zaraitzura Errege Abelbidea, 9 zk., 10 zk., eta 13 zk. zeharkaleak; Pitillasen 15 zk. zeharkalea, 24 zk. pasabidea, 14 zk. bide-adarra eta la Abejera bide-adarra; eta, Zareren, Murillo el Frutotik Zaraitzura Errege Abelbidea.

Hondatutako edo desagertutako mugarriak birjartzearekin Nafarroako Gobernuak onartutako mugaketa eta mugarriztatzea duten abelbideak eguneratu nahi dira, gaur egungo baliabideekin abelbidea mugatzen duten mugarrien kokapen zehatza definitzearen bidez.